



MIRANDAOLA 1580-1980

Javier Larrearen argazkiak
Jokin Otaegi eta Iñaki Zelaiaren testuak

MIRANDAOLA

1580-1980

*Ospakizun hori egin zuten legazpiar eta erakunde guztiei eskerrak
emateko eta egun horretan gertatutakoaren testigantza gisa.*

Edizioa eta koordinazioa: Josean Larrea eta Javier Larrea

Testua: Jokin Otaegi eta Iñaki Zelaia

Diseinua eta maketazioa: Aitor Larrea

Argazkiak: Javier Larrea

Eskubide guztiak erreserbatuta. Ezin da argitalpen honen zatirik erreproduzitu, ez eta ezein erreprodukzio-sisteman biltegitatu ere, ezta inola ere, mekanikoki, fotokopietan, grabazioan edo beste edozein modutan transmititu, egile-eskubideen jabearen baimenik gabe.

Argitalpen honetan agertzen diren argazkiak eta ilustrazioak egile-eskubideen mende daude edo legediak babesten ditu, eta ezin dira kopiatu egile-eskubideen jabearen baimenik gabe.

ISBN: 978-84-09-21381-8

MIRANDAOLA 1580-1980



Jose Anduezak argitalpen honetarako egindako jatorrizko ilustrazioa.

*Ospakizunaren ikur hau Zuberoako Ospitale-Pian
dagoen ateburu batean oinarritzen da.*

Dagoeneko badira berrogei urte. Bai, badira berrogei urte Legazpiko herriak Mirandaolako Gurutzearen IV. Mendeurrena ospatu zuela modu bereziaz. Ezin zen ohartu gabe igaro garai hartako maiatzaren hirua data hura. Bere 400 zenbakiak, hain borobila izanik, merezi zuen urtez urte egin ohi zen ez bezalako ospakizuna.

Eta hala izan zen. Gurutze Santuaren egun hura ez zen beste edozein egun bat bezala igaro. Alderantziz baizik. Legazpiarrek, goizetik gabera, XVI. mende bukaerako eta XVII. mende hasierako Legazpiko garaiko janzkeraz, musikaz, dantzez eta jokoez apaindu zuten. Bi data gogoan hartu nahi ziren. Lehenengo datan, 1580koa hain justu, urte hartan bertan Mirandaolako olagizonek jai egunean lan egitea debekatzen zuen aginduari ez zioten jaramonik egin eta, ohitura zuten bezala, meatzea lantzeari ekin zioten baina gurutze itxurako burdin puska bat bakarrik izan zen lortu zuten etekin guztia; eta gaitzespen jainkotiartzat ulertu zuten gertaera hura. Bigarren datan, 53 urte geroago, lruñako gotzainak mirarizko gurutzea zela aitortu zuen eta, horregatik, elizan gorde behar zela eta Gurutze Santuaren egunetan prozesioan atera behar zela agindu.

Horregatik mirariaren aitorenari handitasuna eta solemnitatea emanez hasi zen 1980ko maiatzaren 3a. Hau bukatu ahala jarduera desberdinak egin ziren jarraian. Esaterako, besteak beste, enparantzan arreo erakusketa; hasieran, Kale Zaharretik eta Kale Berritik, geroago, Bikuña Txikitik eta Motxorrotik Mirandaolaraino etxe sartzeari; ezkontza erituak eta agintarien bazkaria; ikatza eta burdinarekin egindako lanen erakusketa; Markaiztegin tradiziozko joko eta kirolak; senar-emaztegaiei agurra eta, azkenik, Kalerainoko kalejira. Argazkiek eta album honen testuak aipatutako orden hau bera gordetzen dute.

Harrigarritzat har daiteke Gurutzea maiatzaren hiruko elementurik nagusia izanik nola bakarrik egun hasieran aipatu zen esplizituki. Bi arrazoi nagusi izan ziren horrela egiteko. Lehenengoa, Legazpiko herriaren begi bistako fede eta sinesmen erreferentzietatik aparte, gurutzeak burdinarekin lotua dagoen Legazpiko historia luzera garamatzalako. Hain zen luzea non haize-oletako garai urrunetan hasten den eta XX. mendeko lantegian amaitzen. Bigarrena, behialako giza-harremanak islatzen zituenez eta pertsona askori protagonismoa eman nahi zitzaionez, jai bizi eta partaidetza handikoa antolatu

nahi zelako. Ezbairik gabe horri lagundu zion Haranean mendeetan zehar elkarren aurka zeuden olagizon eta baserritarren bi giza-mailak bat egiten zituen ezkontzak.

Guzti honen lekuko jaiari ateratako argazki kopuru handia. Esan ohi denez, argazkiek istant bat solidotzen dute, hots, une hura izoztu egiten dute eta urteetan zehar mantendu egiten. Hau da preseski etxean guztiok ditugun album zahar horien magia; sarritan txuri beltzez, familia, senide eta ahaide hurbil eta urrunen bilakaera kontatzen duten argazki-bilduma horien magia hain zuzen... Eta IV. Mendeurrenaren ospakizuna kontatzen duen album honek hori bera lortzen du, ikusgarriagoa bada ere eta, gainera, testu batez lagundurik dago.

Arestian aipatu dugun testua Jokin Otaegiren kronika bat da eta honek aspaldian ohartarazi zigan nola irakurri behar genuen kronika hura. Horrela zioen: "Nire kronikak, ibilian-ibilian margoz pintatutako koadro txikiak baino ez dute izan nahi, inpresio xume batzuen espresioa." Honi ere lagungarri zaizkio egokiera hartan berak propio sortutako testu poetikoak. *Bai, bai, bai, Arrolako alabea, Nik baditut, A la kiski miski eta Ezkontzen baldin bazara* abestien letrak bereak dira kasik; -hurrenez hurren- Aramaio, Sara, Elgoibar-Oiartzun, Sokoia eta Lantz herrietako abesti herrikoien musiketan oinarritu zen, baita beti Resurrección Maria de Azkueren *Euzkalerriaren Yakintza* liburuaren transkripzioarekin ados izaten saiatu ere.

Irakurle adiskide hori, gonbita egiten dizugu album hau argazkiz argazki goza dezazun. Hau da: irudi bakoitzaren estetika miretsiz; pertsonaiak eta ospakizunean duten papera berean kokatuz; agian ahaztutako senide, adiskide eta auzokoak deskubrituz; koreografia ikusgarriei eritimoa emanez; galdi karrankariei audioa jarritz; burdinolako gabiaren danbadean hotsa sentituz... Eta, ahal den neurrian, gure arbasoen bizimodu antzemanez, euren erritu eta usadioei darien zeinuak ulertzen saiatuz; areago, baita ulertezinaren aurrean euren aztoramenean partaidea izanez ere...

Hots, begi arretatsuez eta begirada txeratsuez argazki bakoitza goza dezazun gonbita egiten dizugu. Bai merezi duela. Etxeko oroitzapenak dira!

Cuarenta años ya. Cuarenta años que el pueblo de Legazpi celebró de manera singular el IV. Centenario de la Cruz de Mirandaola. Y es que aquel 3 de mayo no podía pasar desapercibido. Su número 400, tan redondo él, pedía un recuerdo especial, una celebración distinta de las acostumbradas año tras año.

Y así fue. Aquel día de la Santa Cruz no pasó como uno más. Muy al contrario, los legazpiarras lo fueron engalanando de la mañana a la noche con vestidos de época, músicas, danzas y juegos que querían recrear el Legazpi de fines del s. XVI y comienzos del XVII. La primera fecha porque en 1580 los ferrones de Mirandaola -haciendo caso omiso a la prohibición de trabajar en día festivo y labrando el mineral según costumbre- solo consiguieron producir un trozo de hierro en forma de cruz, suceso que interpretaron como una recriminación divina. La segunda porque 53 años más tarde el obispo de Iruña declaró que se trataba de una cruz milagrosa por lo que los legazpiarras debían guardarla en la iglesia y sacarla en procesión los días de la Santa Cruz.

Por eso el 3 de mayo de 1980 comenzó dando solemnidad a la declaración del milagro. Acabada ésta siguieron actividades muy diversas: arreo erakusketa en la plaza; etxe sartzea por las calles Vieja y Nueva siguiendo por Bikuña Txiki y Motxorro hasta Mirandaola; ritos de boda y comida de autoridades; exhibición de trabajos del carbón y del hierro; juegos y deportes tradicionales en Markaiztegi; despedida a los novios y kalejira a la Calle. Las fotografías y el texto del presente álbum siguen este mismo orden.

Pudiera extrañar que siendo la Cruz el elemento clave del 3 de mayo solo se hiciera alusión expresa a ella al comienzo del día. Dos razones hubo para ello. Primera, que, además de su evidente referencia a la fe y creencias del pueblo legazpiarra, la cruz nos remite también a la larga historia de Legazpi ligada al hierro. Tan larga que se inicia en los tiempos remotos de las haizeolas y acaba en la fábrica del s. XX. Segunda, que se quería una fiesta viva, participativa, que reflejara las relaciones sociales de épocas pasadas y diera protagonismo a muchas personas. A esto contribuyó la boda que unía a dos estamentos secularmente enfrentados en el Valle: los ferrones y los baserriarras.

De todo ello queda constancia en no pocas fotografías sacadas durante la fiesta. Según dicen, las fotografías solidifican un instante, lo congelan y lo mantienen a lo largo de los años. Esta es precisamente la magia de esos álbumes antiguos que todos tenemos en casa y que, en blanco y negro muchas veces, cuentan el devenir de la familia, de los parientes más o menos lejanos... Como lo hace el presente álbum -mucho más vistoso, claro, y con texto de apoyo- que cuenta gráficamente la celebración del IV. Centenario.

El texto de apoyo al que acabamos de referirnos es una crónica de Jokin Otaegi quien ya nos avisó cómo leerla: "Mis crónicas no pretenden ser más que unos pequeños cuadros pintados sobre la marcha, expresión de unas sencillas impresiones." A ello contribuye, además, la abundancia de textos poéticos creados por él mismo para la circunstancia. Las letras de las canciones Bai, bai, bai, Arrolako alabea, Nik baditut, A la kiski miski y Ezkontzen baldin bazara son prácticamente suyas basándose en la música de otras tantas canciones populares provenientes de Aramaio, Sara, Elgoibar-Oiartzun, Sokoa y Lantz, respectivamente, y siempre de acuerdo a las transcripciones de R. M^a de Azkue en su libro Euzkalerriaren Yakintza.

Te invitamos, amigo lector, amiga lectora, a degustar este álbum foto a foto. Es decir: admirar la estética de cada imagen; situar los personajes y el papel que desempeñan en la celebración; descubrir familiares, amigos y vecinos quizás olvidados; dotar de ritmo a las vistosas coreografías; poner sonoro a los chirriantes gurdís; sentir el estruendo del martillo pilón en la ferrería... Y, en la medida de lo posible, entrever el modo de vida de nuestros antepasados, desentrañar los símbolos que rezuman sus ritos y costumbres, participar incluso en su turbación ante lo inexplicable...

Degustar cada foto, en suma, con ojos atentos y mirada afectuosa. Merece la pena. Son recuerdos "de casa".

Iñaki Zelaia

Legazpiko kanpai handia dun-dun-dun...

Txalaparta tiki-taka-tiki-to...

1633. Uztailak bat.

Hor doa gure Erretore Jauna Gotzain Jaun agurgarria agurtzera. Zaldi zuri arrearen gainean gizon sasoiko prestu bizar bakaneko handia. Gorri eta zuri, bere jantzi distiratsuak. Badator fraide eta jakintsuz inguraturik.

Jendea aztoratuta, korrika, begirune, errespetu, jai-giro eta izuan bilduz doa.

Isatsean zurda kiribilduak ondo josita zaldi nabarrak. Gainean Erregeren ordezeko Korrejidore Jaun kasteilanoa.

Segurako bidetik kapela eta kapote dotoreko Jaun alkate eta zinegotziak Korrejidoreari, Gotzainari men egitera.

Eta bertako alkateak –ordurako Legazpik bai baitzuen bere alkatea– eta klereziak, beren lekua ezin egokiturik, herriarengandik nahikoa urrun gune itxia osatzen dute: elkarri men, zaldiak erakutsi..

Kanpaia eta txalaparta isiltzen dira. Eta ondo opildu eta bildutako egitarauari hasiera emateko agindua banatzen du Erretore Jaunak.

Legazpik beti kantatu du fin. Laukote bat, jendartetik pauso bi aurrera eginda, kantuan hasten da:

*Liburu Santuen gainean
egiten dugu zin;
esatera goazen guzi-guzia
nola dugun jakin.*

Eta herriak ozen erantsi:

*Bai, bai, bai; ez, ez, ez.
Obispo Jauna, hitz egin beza,
hitz egin, bai, mesedez.*

Lehenengo ahapaldian nor zen nor adierazi zioten
Gotzain Jaunari, eta bigarreanean honela abestu
zuten. Pedro Elortzak lehenen:

*Santikutz eguna zen, mila
bostehun ta laurogei.
Arrats eta gaua eraman zuten
ikatz a gehi ta gehi.*

Martin Etxeberriak, bigarren lekukoak, abestu zuen:

*Zortziehun libra espero zuten
burnitan atera;
hamahiru librako suzko gurutze,
jo zuten atzera.*

Joannes Zangituk, hirugarren:

*Agoa hustu zutenean
geratu ziren zut;
kurrikaren puntan zeukatena zen
suzko burdin gurutz.*

Eta Jon Telleriak, laugarrenak, honela zioen:

*Arragoa borobila zen,
gurutzea gurutz;
misterio min hau azter ezazu,
Jauna, kontuz-kontuz.*

Nahiz eta Gotzainari begiak jende tartera erraz
joaten zitzaizkion, han zeuden bere jakintsu
teologoak belarriak erne, erabakia taxuz hartua
izan zedin.

Berriro lau lekukoek batera ekin zioten:

*Liburu Santuen gainean
egiten dugu zin;
hemen aitortuak esan bezala
genituen jakin.*

Jendea errespetuz gero eta harrituago zegoen
eta azken "bai, bai, bai; ez, ez, ez" misterioaren
ezkutuak eraginda kantatua izan zen. Oraingoan

Gotzain Jauna bera ere bildu eta pentsakor, eta beti bezala jaun eta handi ageri zen.

Keinu apalez fraideteria sakristiara joan zen entzundakoari buruz erabakia hartzera. Bitartean, herriko alkate, zinegotzi eta oletako nagusiek Gotzain Jaun, Korrejidore eta beste etorkin Jaunei beren agur-dantza eta Legazpiko ezpata-dantza eskaini zieten.

Keinu apaleko fraideak etorri ziren. Gotzain Jaunaren eskuetan paper bat ipini zuten.

Gotzain Jaunaren zutik jartzeak jendea euri-tanta hotzetan zurt lotu zuen. Hala ere, Erretore Jaunak "ixo" oihu egin beharra sentitu zuen.

— Beraz —ekin zion Gotzain Jaunak— Eliza honetako arduraduna den Joan Agirrerri jaramon eginez Mirandaolan gertatu zena miraritzat

hartu behar dugunik ez dugu zalantzan jarri behar. Horregatik zera erabakitzen dut:

Lehenik, gurutze hori mirakuluzkotzat aintzat hartu beharrean gaude.

Bigarren, gurutzea parrokoa honetako leku duin eta egokian jarri behar duzue.

Eta hirugarren, Santikutz egunean jazoera laudatzeko prozesio bikaina egingo duzue.



Elizaren lehen agindua bete izan dadin jaiak santutu eta errespetatu behar dituzuela gogorarazten digu mirari honek.

Hala biz.























Erretore Jaunak orduan ozenki aldarrikatu zuen:

— Eliza Ama Santaren arabera ezkontzeko asmotan dira Arrolako Isidra eta Mirandaolako Matxin. Hau da azkeneko deia. Norbaitek eragotz lezakeen zerbait balu, lehenbailehen jakinaraztera beharturik dago.

Gurutze sakratuaren arazoak jendea begirunez eta izuz bete bazuen ere, Erretore Jaunaren azken deiak beste giro batera itzuli zuen itzuli: jaia, dantza eta kanta.

Zelatari zeuden matxinoek hasi zuten beren tobera-musika kantu eta dantzaz. Behin eta berriz:

*Arrolako alabea,
maiatzeko lorea,
Arrolako alabea,
non dun hire dotea?*

Isidraren baserritar lagun bati baino gehiagori mingarri zitzaion matxino mutur-zikinen goizkanta baldarra. Ez zen zirikatzailerik falta:

— Ez kasurik egin...

— Erantzun egien. Ikus dezatela hire balioa eta zorrotza...

Isidrak ez zuen gehiegi pentsatu, baina aurrera heltzean irten zitzaion:

*Ardatz puntan hor kuiloa
oihal irutekoa;
hemen, berriz, burukoa
maitasun piztekoa.*

Zezenetan dabilenak zezena bere kapotera biltzen badu, Isidra ez zegoen atzera egiteko begi gorrien aurrean.

*Kutxa apain hontan datoz
oheko estalkiak;
nire bular barrenean
maitasun berokoak.*

*Ezkongela samurtzeko
larru kilikaria;
sutondoan esertzeko
belarrezko aulkia.*

Eta eztarri zakartsuak, ezti gehiagoren eske:

*Arrolako alabea,
maiatzeko lorea,
Arrolako alabea,
non dun hire dotea?*

*Gaztetatik neuk landuta
hamabi liho izara;
ohean sartzerakoan
amodio-ikara.*

*Sukaldeko hornidurak
katilu ta eltzea;
etxeoak sendo hazteko
pertzakada esnea.*

Gurdian zeraman dote osoa kantatzen joan zen:

*Erratza, erratza,
betiko jardun latza;
buru apain ta ispilua
betiko esperantza.*

*Igande eta jaietan
zuri-zuri atorra;
eguneroko lanetan
andere bihozkorra.*

Eta amaitzeko:

*Gizonezkoen pozgarri
zahagi ardo gorri;
amodiozko festetan
gauerdian oskorri.*

Matxinoen uju eta aja artean ardoa banatu
zuen Isidrak.

Plazaolako Jose Mielek txantxaz eta algaraz
eraso zion:

*Arrolako alabea,
a, zein dote merkea!*

Isidraren lagun baserritarrak mindu ziren biziki
baina goiz-goizetik ez zela egoki zapuzkerietan
hastea eta aurrera eragin zioten idi pareari.

Hala ere, Lakiolako Bixentek arnasestuka
aurretik pasatzean:

*Arrolako alabeak,
markesaren dotea!*

Eta etxe sartzeari ekin zioten: Bikuña Txiki,
Motxorro...

Hor doaz musikagileak hain gozo musika egiten,
ahari gorrizkatuak Jose Frantziskoren eskutik,
txerri gizona Ttitto artaburuaren atzetik,
'Beltxa' artzain-ora apala, guriak Isidraren
arrea erakusten kantari, Arrolako etxeoandre
Ana, apaingailuz beteriko bere gona eta jaka
beltzekin, xerra gorridun atorra zuria, mantelina
burugainetik eta oinetako beltzak...
























Mirandaolan zegoen zain senargai bilohoria,
Matxin olagizon sendo eta gaztea. Goitik
behera beltz distiratsu. Familia osoa inguru.
Toberak, kanpaiak eta musika guztiak.
Aitak gorritz pintatutako ahari bat senargaiaren
etxera atzekoz aurrera sartarazi zuen,
Mirandaolako etxeoandreak etxeko
andregaiari ziolarik:

— Zikiro honen bidez zure ondasunak gure
etxean sartu dira. Beraz, daukazun guztia
gurekin banatu nahi duzula azaldu diguzu era
honetan. Nolako andregai, halako habia.

Matxin gazteak usadiozko kantu baten
bitartez erakutsi behar zituen andregaiak
oparitutakoak. Harri eta zur zegoen jendea
zain. Ahotsa hasieran emea gertatu zen:

Nik baditut zapatilak...

Eta han zeuden guztiek batera erantsi:

*... emaztegaiak emanak,
emaztegaiak emanak.*

Zapatilak larru fina, hebiletan kordioak...

*... emaztegaiak emanak,
emaztegaiak emanak—guztiek—.*

Eta dantza-pauso batzuen bitartez koadro
elegante apaina eratzen zuten denen artean.
Matxinen arnasa bere onera etortzen hasi
zen eta ahotsa ozen eta mailukari bihurtzen.
Ahapaldi bakoitzean aurretik esandako dena
bilduz zihoan:

Galtzetinak, zikiro fina...

Pantaloiak, oihal fina...

Gerrikoa, artile fina...

Alkandora, holanda fina...

Txalekoa, korte fina...

Eraztuna, zilar fina...

Sonbreroa, kastor fina...

Eta ikusleek behin eta berriz: “... emaztegaiak
emanak, emaztegaiak emanak.” Eta dantza eta
jira.

Santueneko Juana Josepak oinetara lapiko bat ekarri zien. Eta makila bat eskuetan ezarri. Biak makila bakarrari heldu zitzaizkion.

Senargaiaren aitak begietan zapi bat jarri zien, zioztalarik:

— Poz zaitetze esku emanez aldare aurrean, bizi zaitetze bake-bakean mende guztien mendean. Puska ezazue zuen zeurekoikeria.

Txistuak soinu barregarria jo zuen. Biek lapiko inguruan dantza egin zuten eta azken konpasetan lapikoa hautsi.

Orduan senargaiaren aitak jende gosetuari:

— Jateko garaia heldu zaigu. Etxe honetako janak eta edanak on egin diezazuela.

Gonbidatuak Mirandaolako zelaian bildu ziren bazkaritara. Besteak txistulariak kalejiraz Markaiztegiko zelaia eraman zituen, bakoitzak ekarritakoa jan zezan. Ezteiliarren janaria, berriz, nahiko jakina zen: ogi-zopa, haragi zatiz lagunduriko barbantzu lapikokoa, zikiro-haragia, sagarrak eta intxaurrek, nafar ardoa.

Bazkaldu eta gero ume jendea lehenen, gaztetxoak gero, jendea, etengabe Mirandaolako zelaia heltzen ari zen. Jendez inguraturik geratu ziren nagusiak.

Gizon aldra, baserritar eta olagizon, txantxazaleek jokoren bat bazekarten mahaikoak suspertzeko eta sentipen amultsuetatik ezkonberriak esnatzeko. Hasi zen bat mahai erdiaren gainean balantza eta dantza, denek ziotela:

*A la kiski miski zirriki plas,
festa honetan nagusiari... zas!*

Etengabe joan ziren ahapaldiak, barre, algara, etsipen, haserre-giroan txandaka tokatzen zelarik:

*Obispo Jaunari,
bide ibiltari,
benta guztietan gona usailari.*

*Korrejidore y tal,
yo no poder hablar,
Kastilara joan hadi pa poder jalar.*

*Hor doa Balentin,
ontz urreak txintxin,
alkate Seguran ta lapur Legazpin.*

*Apaiz zorrotzari,
koadjutoreari,
hobe bazina herren errementari.*

*Alkate Jaunari,
alkate dantzari,
herria konpontzeko arin pauso hori.*

*Fraide ta kalonje,
zurizko ohore,
zikiro jan ondoren ni ere dotore.*

*Erretore jauna,
sabela astuna,
belarrez mantendu eta garizuma.*

*Hara hor amona,
besotik aitona;
nondik atera duzu holako gona?*

*Hara hor aitona,
besotik amona;
ilobatxoa dute, ai, ze moñoña.*

*Neskazarra, nora?
Nora hoa, nora?
Titi hori sar ezan hire kolkora.*

*Mutilzarra hor,
gautxori ta sator,
neska bila joan eta itzuli mozkor.*

Eta jakina, ahapaldi bakoitzaren atzetik jende guztiak oihuka:

*A la kiski miski zirriki plas,
festa honetan nagusiari... zas!*































Mahaiak astindu ederra hartu orduko bazen salto eta irrintzi, txistu eta algara, desafio eta jolasa Markaiztegiko zelaian.

Ola-nagusi zalduntxo etorri berriak zaldi nafar kolore zurda horizko desiragarria benetan. Baserritarrak bekaizti ziren.

— Polita duk zaldia, baina baietz gure arteko seik atzeraka ekarri.

— Nire zaldiaren aurka jokatu nahi duzue? Ez daukazue txarra. Baietz denak zilipurdika utzi nire zaldi honek.

Ezetz eta baietz, eta gero eta jende gehiago inguruan. Ezin inork atzera jo. Lotu dira baserritarrak, ondo lotu ere, zaldia atzeraka eramango dutelakoan. Jartzen du Manuelek zaldi hezia hasieran atzera egiteko moduan. Aise daramate zaldia atzeraka. Barre eta algara hastera doazen puntu hartan bertan, erasotzen dio Manuelek bere zaldi zurda horizkoari agirika. Hor doaz sei baserritarrak, eta beste lau izan balira ere bai, hankaz gora, muturrez aurrera eta zilipurdika. Txaloak, jolasak eta minak Markaiztegin.

Eta San Migelen, zer? Mendi-hegal horretan egurra eta mea, txondorra eta haize-ola, txinparta eta kea, basa-mutil, ikazkin eta olagizonen dantzan: zuhaitza zirrin eta zarran

moztu, egurra pila-pilaka egosi, burdin harria suaz urtu...

Mirandaolako zeharrolan, berriz —barruko infernu hartan—, olagizona zen errege. Otarre bat burdin harriz bete zuen, gero lau otarrekada ikatz eta guztia labera bota. Uraren indarrez hauspo handia faaaaaa, fuuuuuu, faaaaaa hasi zen gero eta azkarrago abiada itsuan. Olako labea eguzki bera zen. Sutan begiak, matxinoak agoa gabipean jarri zuen. Lagunak uhaga jaitsi eta gabia saltoka hasi zen jo eta jo ola bera ere dardaran jarritz.

Su festa bizi-bizia:

ura ta sua, sua ta ura,

haizea, ura ta sua...

Markaiztegi eta Mirandaolako zelaietan dantza eta festa. Bata bestearen atzetik lotzen zituen herriak dantzak eta jokoak inoren agindurik gabe: aizkolariak, segalari-dantza, harri-jasotzaileak, gerriko-dantza, txinga-eramaileak, sokatira, zartagin-dantza, ezkila-fraidea, aulki-dantza, itsas-dantza, ahari-jokoa, oilar-jokoa, Orbaitzetako dantza, zazpi jauzi, bizkar-jokoa, zahagi-lasterketak...

Baina Angelus kanpai-hotsak gertu ziren eta jendea bideari heltzen ari zitzaion.

Jorrai-dantzariak beren aitzurtxoekin bazetozen dantzara, jendeari lanerako bidea hartu beharra zegoela adieraziz.

Ezkonberriak Mirandaolako jauregira hurbildu ziren eta leihotik azken agurra eman zioten ikusteko zegoen jende egarrituari. Txistuak ezkonberriak lotaratzeko soinua jo zuen. Eta maiek azken agurtzat mehe-mehe eta bularrak bekaitzez arnasestuka "Aritz adarrean" abestia kantatu zuten: "Sagar adarrean belatxinga dantzan, esku zuri ederrean lorea..."

Bazen garaia herrira itzultzeko. Aspertu ezinezko gazteria bere barrena hustuz:

*Ezkontzen baldin bazara
baserritar batekin
maiz hartuko dituzu
aitzur kirtenekin.*

*Lau, lau, lau, dotea badut baina
lau, lau, lau, ardoak galtzen nau.*

*Ezkontzen baldin bazara
mandazainen batekin
maiz hartuko dituzu
mando karrotekin.*

Lau, lau, lau... Kanta eta dantza kalejira:

*Ezkontzen baldin bazara
errotazain batekin
maiz hartuko dituzu
zorro makilekin.*

*Ezkontzen baldin bazara
ikazkinen batekin
maiz hartuko dituzu
txondor mazoekin.*

*Ezkontzen baldin bazara
olagizon batekin
maiz hartuko dituzu
burdin hagarekin.*

Denak lisdraz gogoratu ziren maltzurki. Eta aurrera jo eta ke.

*Lau, lau, lau, dotea badut baina
lau, lau, lau, ardoak galtzen nau.*

Urrutian kalejira.

San Migeleko kanpaitxoa dilin-dilin.

















































PARTAIDEAK

1. KOORDINATZAILEA

Iñaki Zelaia

Koordinatzailearen laguntzailea

Anun Andueza

2. ARDURADUNAK

Testuak

Jon Lezamiz, Jokin Otaegi

Janzkerak

Mariaje Apaolaza, Sokorro Ibarreta,
Rosa Perez, Lourdes Zuhaitz

Arreoa, Taberna

Joxe Olabide, Lourdes Agirre,
Maripaz Aranguren

Dantzak

Angel Murua

Kirolak, jokuak

Manuel Aztiria

Lanak

Esteban Alzelai

Sonoroa

Juanjo Perez

3. SOINUJOLEAK

Txistulariak

Julian Auzmendi eta Legazpiko txistulariak

Dultzainariak

Urretxuko dultzainariak

Tobera eta txalaparta jotzaileak

Sabino Maiz, Mikel Untzilla

4. ABESLARIAK

Lekukoak

Pedro Elortza, Félix Dorronsoro,
Martin Etxeberria, Jesus Armendariz,
Joannes Zangitu, Yeregui, Joan Teileria

“Lau, lau, lau”

Felix Dorronsoro

Bertsolariak

Bittor Agirre, J. M. Matxinandiarena

5. ANTZEZLARIAK

Aurkezlea

Agustin Beloki

Andregaia

Miren Alustiza

Aita

Felix Kastañares

Ama

Juanita Alzelai

Aitona, aitaren partetik

Donato Luko

Amona

Lukoren emaztea

Aitona, amaren partetik

Victor Andueza

Amona

Juana Ugarte

Osaba eta izeba

Ignacio Goiburu eta emaztea

Senargaia

Antton Iñurritegi

Aita

Luis Bolinaga

Ama

Lolo Alzelai

Aitona

Azpeitia

Amona

Azpeitiaren emaztea

Osaba eta izeba

Juan M. Arsuaga eta emaztea

Iruñako gotzaina

Julian Beloki

Gipuzkoako Korrejidorea

Jesus M. Giné, Mila Pérez

Segurako Alkatea

Valentín Izagirre, Rosa Pérez

Legazpiko Alkatea

Jose Ignacio Elortza, Mila Beitia

Legazpiko zinegotzia

Joxe Altzibar eta emaztea

Legazpiko Erretorea

Manuel Uribetxeberria

Olagizon borrokalaria

Jose Ramon Ibeas

Apaiz zorrotza

Jesus M. Larrea

Eskribaua, aintzindaria

Ramon Odriozola

Barbera

Jose Ramon Pato

Zaldizaina

Gabino

Aharizaina

Juanjo Aranguren

Zerrizaina

Juan Elgarresta

6. LANGILEAK**Olagizonak**

Primi Murgiondo, Tibur Agirre

Ikazkinak

Anjel Jauregi, Juan M. Aranburu,
Eusebio Aranburu

Zerralariak

Ignacio Otermin, Retegi, Aizpuru,
Candido Ormazabal

Eskoaragilea

Patxi Azarola

Harilketaria

Manuel Agirre

Laiariak

Tomas Beloki, Patxi Beloki, Txomin Iturbe,
Gabirierra

Talogileak

Eusebi Etxeberria, Narcisa Gerra

Sukaldariak

Lupe Alzelai, Mari Tere Madinabeitia

Eta hainbeste legazpiar adoretzu.
Zorionak guztiei!

